

kitto TOKIKOM
...eta

791 zkia. 2012-1-27

ASTEKARIA

Armeria Eskola: 100 URTEKO IRAKASGAIA

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



- Antonio Murillo doktorea
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu
dela ere, eskaintzen
dizkizugun abantailekin**


**BELDURRA
DENTISTARI?**

ZER DA HORI?



Sedaziazarekin

gustoa



ematen du!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
ostegunera:
10-14 / 16-20h / Os-
tiraletan:
10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

RPS 04/02

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com**Elkartearen E-MAILak:**elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:Leire Iturbe, E. Belar
eta S. Hernandez**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Armeria Eskola

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IMILLAUN.- Garauak pixatzeko neurria. "Imillaunka jaten zittuen babak haren etxian".**IMIÑA.-** Garauak pisatzeko neurria. Imillauna = imiñiaren laurdena. Erderazko 'cuartal', 'cuarto de fanega'. "Imiña bat gaztiaña ipiñi eben afaittarako".**IMUTXA.-** Etxe zaharretan eta oheetan egoten diren intsektuak. Gaztelerazko 'chinche'. "Gehitu ziran imutxak bezela eta berriz bete eben lur gaiña".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarrik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailaz: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko

HEMEROTEKA


esaldiak

"Orain, iraultza aurretik baino murrizketa gehiago dago Egipton. Estatu sekularra nahi genuen, eta presidente militarra eta lege islamikoa izango dugu. Gehiengo isila deritzona ere iraultzailearen kontra dihardute jartzen, segurtasunaren eta egonkortasunaren izenean; eta, zoritxarrez, lortzen ari dira. Armadak dio ekinean alde egingo duela, baina militar asko hauteskundeetara aurkeztu behar da"

(Xakira Amin, Egiptoko telebista publikoko esataria)

"Fetu baten garapena etetea muntstrokeriatzat jotzen zutenei ez zien ardura ume jaioberri bat gupidarik gabe amaren magaletik kentzeak. Halako delituak egiteko babes politikoa eta, behar izanez gero, lotura eta baliabide ekonomiko egokiak zituzten pertsonak osatzen zuten botere hori. Auzi honetan ez dugu Neguriko oligarkiako familia aberats baten salaketa bat bera ere ikusi; ezta ikusiko ere"

(Jose Mari Pastor, kazetaria)

EIBARKO
UDALAGIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Udaleko bihargiñak murrizketen kontra

**AURREKO ASTIAN, EGUE-
NIAN, ALKARRATERATZIA
EGIÑ EBEN UDALEKO
BIHARGIÑAK,** "Zerbitzu publi-
kuen alde. Murrizketarik ez. Ei-
barko hitzarmena negoziatu"
idatzita zekan pankartaren
atzian, "sektore publikuari mu-
rrizketak aplikauta eta lanpos-
tuak desagertarazita lan-bal-
dintzak erregulatzeko Udala-
ren borondate faltia salatze-
ko" asmuarekin. Udaleko Pertso-
nal Batzordiak eta Enpresa
Komiteak (ELA, CCOO, LAB
eta Erne sindikatuak) siñatuta-

ko idatzizak diñuari jarraituta,
"korporaziñuak, Rajoyren de-
kretua zein EUDEleko mahai
orokorretik edo Eusko Jaurlari-
tzaren mahai orokorretik erato-
rrita etor leikiazzenak aplikau-
ta, gure lan baldintzak murriz-
ten segitzeko ahalegiñari eus-
tia erabat errefusatzen" dabe.
Horrekin batera, Udalak
2010ian plenuan onartutako
akordixua "ez ebala bete" eta
"soldatak jaitsi zittuala" sala-
tzen dabe, "horretxek 2011n
izoztuta". Gaiñera, "herritar-
rak ez kaltetzeko eta zerbitzuen



Aurreko astian bihargiñak kalera etara zittuen euren eskaeriak / EKHI BELAR

kalidadiari eusteko biharrez-
kuak ziran bihargiñak" ez zi-
ttuala kontratau diñue eta eu-
reri "estutzeko" eskatzen de-
tsen bittartian "politikuak iazko
ekaiñian euren soldatak %5
igo zittuala" gogor kritikatzan

dabe. Salaketa egittiarekin ba-
tera, udal korporaziñuari "eu-
ren lan baldintzak ezartzeko
eta galtzen jua diran lan-es-
kubidiak berreskuratzeko" ma-
haixan biharrian hastia eska-
tzen dabe bihargiñak.



Protekziñoko 42 etxien zozketarako zerrendak


**IPARRAGIRRE KALEKO 10-
IAN BABES OFIZIALEKO 42
ETXE ESLEITZEKO BEHIN-
BEHIÑEKO LISTAK** onartu eta
argitara emon dittu Udalak,
errolatze eta diru-sarrereri lotu-
tako baldintzak ez betetziagaitik
baztertutako lagunen zerrende-
kin batera. Listak Pegoran zein
Udalaren webgunian (www.eibar.net)
konsultatzeko moduan
ipiñi dittue eta erreklamaziñuak

egitteko azken eguna otsaillaren
3a izango da. Aurreikusittako
epiak bete ezkeru, otsaillaren er-
dialdera zozketia egittia pentsa-
tzen dabe. 500 bat lagunak izan-
go dabe zozketan parte hartze-
ko aukeria eta saltzeko egingo di-
ttuen etxien prezia 125.000 eu-
rotik 158.000 eurora bittartekua
izango dala aurreratu dabe, ta-
maiñuaren arabera (logela bi eta
hirukuak izango dira).

Matsarixari eskindutako erakusketia

**AURREKO BARIKAKUAN INAUGURAU
EBEN PORTALEAN "MATSARIAN ZERBAIT
GERTATZEN ARI DA"** izenburuko erakusketia,
Reakt kolektiboko arkitektuak euren masterra-
ren barruan landutako Matsarirako proposame-
nak batzen dittuan erakusketia. Otsaillaren 4ra
arte ohiko ordutegixan, hau da, martitzenetik

domekara 18.30xetatik 20.30xetara bisittatzeko
moduan izango da erakusketia. Gaiñera, hain-
bat bisita gidatu antolatu dittue. Horren harira,
bixar 12.00xetan Portale paretik minibusak ur-
tengo dau, Matsarixan bertan proposamene-
n gaiñeko esplikaziñuak arkitektuen ahotik en-
tzun nahi dabenendako.



MAIALEN LOPEZ IGLESIAS 2. URTEURRENA

Urte bi joan dira eta ez da izan egun bakar bat ere zuga eta laga diguzun hutsunean pentsatu ez dugunik. Beti izango zara gure bihotzetan

Maitze zaitugu / Zurge kuadrila



Ego errekia birsortzeko hitzarmen barrixa

URAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA DEBEGESAK IBAIXA BIRSORTZEN SEGITZEKO hitzarmena siñatu dabe oingo astian. 2009xan hasittako "Deba ibaia berreskuratzeko eta balioa emateko programa integrala" dalakuari jarraituta, astelehen goizian siñatu eben urtebeterako hitzarmen barrixa Iñaki Urrizal-ki Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusixak eta Juan Angel Balbás Debegesako zuzendari-xak. Siñatutakuak proiektu bi batzen dittu: Ego in-



guru birsortziarekin lotutakua eta degradauta daguazen inguruko beste guniak hobetzeko azterketia egittiarekin lotutakua.

Udalak webgune barrixa presentau dau

EIBARKO UDALAK WWW.EIBAR.NET BERE WEBGUNA BARRITU DAU. Aurreko barixakua presentau eben gune barrixa Miguel De los Toyos alkatiak eta Idoia Gorritxo Udaleko antolaketa teknikarixak. Eurak

esandakuaren arabera, "erabiltzeko erraza da, erakargarria eta herritarrendako informaziño asko" dauka interneterako atari barrixak, izan be "Udalaren eta herritarren arteko interakziñua" billatzen dabe-eta.



Idoia Gorritxo eta alkati, barixakuan gune barrixa ezagutzera emoten. / EKHI BELAR

Berritasunen artian, Eibar TV-rekin alkarlanian jardungo dabe eta, horri esker, hillero aktualidadari lotutako sei bideo eskegitzeko asmua dakela azpimarratu eben aurkezpenian. Horrekin batera, gure herrixarekin zerikusixa dakan informaziñua konsultatzeko moduan ipiñiko dabe, azken orduko barrixak irakurgai egongo dira, kultura eskintzaren barri emoten juango dira eta tramitiak egitteko aukeria be eukiko dabe herritarrak (azken honek egiñ ahal izateko, baiña, txartel-irakurgailua eta NAN elektronikua eukitzia ezinbestekua izango da).

a u t u a n

ATE IREKIXAK ALDATZEN

Bixar, 11.30xetatik aurrera "Aldatze danok gara" ate irekixen jardunaldixa egingo dabe ikastetxian, nahi dabenak eskolia zuzenian ezagutzeko. Bestiak beste bisita gidatua, bertso saiua, jokuak, perkusiño-saiua eta gurasueri eguneroko martxaren barri emoteko hainbat taillar antolatu dittue.

MARRAZKI LEHIAKETIA

Aratostien gaiñeko marrazki lehiaketia antolatu dabe Errebal, Ibarkurutze, Estaziño, Arragueta eta San Agustin kalietako dendari eta tabernarixak. Mailla bi bereiziko dittue (8 urtera arte eta 9-14 urte bittartekuak) eta bakotxian 100 euroko balixua dakan premixua emongo dabe. Marrazkixak otsaillaren 1etik 13ra bittartian jasoko dittue dendetan.

PREST



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

- Goi Eskola Politeknikoa
- Arrasate OTSAILAK 4 larunbata, 10:30
- Enpresagintza Fakultatea
- Oñati OTSAILAK 18 larunbata, 11:00
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
- Eskoriatza OTSAILAK 2 osteguna, 18:00
- Gastronomia Zientzien Fakultatea
- Donostia OTSAILAK 16 osteguna, 18:00

asteko
31.500
datua

biaje registrau zittuen Gabonetako barraketan, gehixenak (28.000 bat) atrakziñuak duan izan ziran egunetan. Txikipark-ak, barriz, 2 eta 5 urte bittarteko 10 egunian 600 ume hartu zittuan.



Lan munduari lotutako taillarrak

HILLE HONETAN HASITTAKO BIDIARI JARRAITTUTA, DATOZEN EGUNETAN BE LANBIDEK eta Udalak antolatutako talde-tallarrak jarraipena eukiko dabe: otsaillaren 1ian "Lan biltaketan komunikaziño eredu barrixak" izenburukua emongo dabe, 15ian "Zure lan etorkizunerako begiradia" izenekua, 22xan "Zure markia eraiki; Komunikaziño teknikak" izenekua, 29xan "Lana eta ikasketak atzerrixan" dalakua

eta martxuak 14an "Atzeritarrak; Egoera administratibua" izenekuarekin amaittuko dabe eskintza. Taillar Portalean (ikastaro gelan, 3. pisuan) emongo dittue, 10.00etatik 13.00etara eta parte hartu nahi dabenak derrigorrez izena emon biharko dau alde z aurretik 943 82 01 80 telefonora deittuta, svo@debegesa.com helbidera idatzitta edo www.lanbide.net webgunian sartuta.

Sahararako elikagaixak batzeko kanpaiña

EIBAR-SAHARA ALKARTEKUAK, AURREKO URTIOTAKO MARTXIARI JARRAITTUTA, Tinduf-en bizi diran errefuxiatu saharareri laguntzeko elikagai eta higieproduktuak batzeko kanpaiña dake martxan. Urtarrilla

amaittu bittartian batuko dittue produktuak Eibar eta Elgoibarko ikastetxe eta dendetan. Eibarren kanpaiñiarekin bat egin dabenak Eroski, El Corte Inglés, Villalba supermerka (Proxim), BM, Dia eta Isasi okindegixa dira. Eskatzen dittuen produktuak, barriz, honetxek dira: arroza, leka-leak, pasta, atuna, sardiñak olixotan, azukria, oli-xua, konpresak eta nagusixendako pixoihalak.



Museua France 3 telebisiñuan

MARYSE BERGONZAT, FRANCE 3 TELEBISIÑO KATEKO "LE MAGAZIN DEN PYRÉNÉES" DOKUMENTAL ITXURIA dakan programako errealizadoriak lau egun emon dittu gure herrixan, Eibar eta bere industxiari eskindutako erreportajerako irudi eta bestelakuak batzen. Erreportajian batez be armagintzari emon nahi izan detsa garrantzixa, sektoriak beste indus-

tria batzuetara moldatzen juateko emondako pausuekin batera. Hori dana kontatzen juateko ardatza, barriz, aurreko astian bertan 5 urte bete zittuan Eibarko Armagintzaren Museua izan dala azaldu deskue bertako arduradunak. Museuan ez eze, irudixak grabatzen Alfa-Arten, AYAn, Pedro Arrizabalagan, BOJ, El Cascon eta beste hainbat taillaretan be ibilli ziran.



France 3 telebisiño lantaldia, grabaziñuan lagundu detsen eibartarrekin.

• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON
M O D A

Valenciaga


K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7


Hazienda danok gara (batzuk bestioak baiño gehiago, diñue batzuek), holan, errenta aitortpena egitten dogu herritarrok urtero. Hor eliziari edo Gobernuz Kanponko Erakundieri errentaren portzentaia emoteko aukeria egitten da, eta oiñ zientziarendako laukitxua ipintzeko proposamena egin da.

Zientziari laguntzeko laukitxua ipiñiko zenduke errenta aitortpenian?



JULEN ALCOBA
17 urte
ikaslia

Bai, nizientziari laguntzeko laukitxua errenta aitortpenian ipintzeko aldekoa naiz. Pentsatzen dot gauza erabilgarria izango litza-keela eta, era berian, interesgarria be bai.




LOREA GOROSTIZA
26 urte
jantokiko monitoria

Zientziari laguntzeko bada, diru horrekin egitten diran ikerketien arabera, ondo ikusten dot laukitxua ipintzia. Adibidez, gaixotasunen gaiñian ikerketak egitteko erabili leike, eta zenbat eta diru gehiago egon, hobeto.


FELIPE ANDONEGI
44 urte
produkziño nagusixa

Ondo ikusten dot zientziari laguntzeko laukitxua ipintzia. Begittantzen jata positibua dala zientziari laguntzia eliziari baiño. Holan ikerketa interesgarriak egitteko aukera gehiago egongo lirakez.



CATI ROLO
52 urte
etxeoandria

Entzun izan dot zeozer gaixaren gaiñian eta ideia ona dala begittantzen jata errenta aitortpenian zientziari laguntzeko laukitxua ipintzia. Positibua dala begittantzen jata.



EGOITZA NAGUSIA
Sibabarrata 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errozketa laboa
- Egaitzen (Sirena poligonari)
- Paribakar, intsu eta aieguri etxei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urtsuriansko aibelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan bertzen zerbitzuak
- Nazio eta Nazioarteko iradigileak

Mugica Ehorzketa
Funerariak laboa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Solomoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a
Txipiroti nahaskia

Legatza plantxan edo
Bakañao Club Ranero erara

Entrecot-a Idiazabalgo saltsarekin edo
Ahatte confit-a

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a Armagnac erara

Etxeko Errioxako kiantza ardoa,
sagardoa edo beste

Astelehenetik barixakura
EGUNEKO MENUA
16 €
kiantzarekin

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ



Berba horri, intuiziñuari, erantzun zetsala Eibarrek ziñuan Pedro Zelaia zanak Armeria Eskola zegaittik sortu zan esaterakuan. Gure herrixaren "sentido progresistari" esker, ikusi eben XX. mende hasierako eibartarrak halako eskola bat sortu biharra. 1910eko urtarrillaren 24an hartu eban Udalak erabagixa. Handik urtebetera, Fermin Calbetón ministruari gure herrixak egin zetsan omenaldixan, honek Eskola egingo zala ziurtau eban "ikasketa manualak zientifikuarekin alkarlotuta, hamengo industrixak bertako bihargiñen inteligentzia eta kulturua jasoko dabelako".

Atzo, bestalde, oin dala hiru-lau urte martxan ipiñi eben mendeurrenaren ospakizunetarako beste pausu bat emon eben, "aurten-go programaziñorako pistoletazua" deitutakua. Igaz be hainbat ekitaldi egin ziran, baiña aurtengua izango da mendeurrenaren urte haundixa. Martin



Lehelengo harrixa 1913ko Errege egunian jarri eben. Egun berian hasi ziran eskolako klasiak, baiña Frontoi Zaharrian.



Intuiziño baten errealidadia 100 URTE GERUAGO

Garitano Gipuzkuako Diputatu Nagusixa eta Bernabe Unda Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua izan ziran, Miguel de los Toyos herriko alkatiarekin batera, Armeria Eskolan egin zan Mendeurrenaren inauguraziño ekitaldixan. Jose Luis Novoa zentroko gaur egungo zuzendarixak, berriro be, "ospatu barik, inizatiba hartzeko ordua dala" nabarmendu eban, aurreko batian be mahairatutako "transgresiñuaren bidetik jo bihar dogu" esaldixa errepikatuz, "oin dala ehun urte hau sortu ebenak egindako bidetik".

Ekitaldixan Zentenaarixuaren Kartela be aurkeztu eben, "aurkeztutako 124 lanen artian aukeratutakua". Joxe Mari Ulazia Ikasle-Ohien presidentiak "Eibarrek eta Eibarren alde" egindako biharra azpimarratu eban atzoko ekitaldixan. Martxuaren 24kua data esangura-

tsua izango da: belaunaldixen arteko topaketia egingo da, egun horretan, ikasle, irakasle, administratibo eta "Armeria Eskolaren parte izan diran eta diran" guztiekin. Horrekin lotuta, hor jarraitzen dau lan guzti hori aurrera eruateko sortutako komisiñua zentroko ikasle dekanuaren billa: "Igual 100 urte egingo dittu berak be". 16.000tik gora ikasle pasatu dira urte guzti hauetan Armerixatik, ikasketak egitteko.

lehelengo ekitaldixa, gero Erregien Kabalgatian jarraituko ebana. Eta martitzen hone-tan izan da gure herrixan Bogdan Maglich fisiko nuklearra, Robert McCarthy doktoriarekin batera: aittatutako zientifiko bi-xak izen haundixa dake medikuntza arluan eta hainbat aurkikuntza egin dittue minbiziaz-aren kontrako osasun arluan.

Egunotan Mendeurreneko web portala be gaurkotuko dabe, "La Caixaren laguntzaz";



Azken hamarkadatan emakumiak be bere tokixa izan dau Armerixan.


Ekitaldixaren amaieran, Mendeurreneko Urrezko Liburua estrenau zan, Armeria Eskolarekin lotutako jende guztia- ren siñadurak jasoko dabena. Eta Gorantz abesbatzak "Gure Gero-Gura Gara" eskolaren le- ma barrixa interpretau eban.

10.000 fotografixa

Urtia hastiarekin batera, Ur-ko puntara igota egiñ eben Mendeurrenekuak aurtengo

sare sozialetara zabalduko dana eta egitten diran gauza guztien barri emongo dau. Ho- lan, "mendeurrenaren ingu- ruan egindako lan guztiak zentroko datu-basia hobetze- ko balio izan desku", diñue zentroan.

Artxibo fotografikua be lan- du da bereziki eta 10.000 foto- grafixatik gora digitalizatu dira. Iñaki Alberdik eta Fernando Sagastigutxiak jardun dabe



lan horretan buru-belarri eta hori izango da oiñarrixa urte amaierian kaleratzeko asmua dagan liburu eta audiobisualerako. *“Urte guzti hauetan edozer gauza lortzeko zenbat tramite bete bihar izan dittugun, Madrillera zenbat buelta... hori guztia islatzen da manejan ahal izan dittugun materialetan. Azken batian, zentro publikua izatiaren desbantaillak: edozer gauza lortzeko, ate asko jo biharra! Eskutitzak be izan dittugu esku artian, aittatutako tramitien bari emon deskunak”*, diño Iñaki Alberdi zentroko zuzendari-orde izandakua.

Geraeziñezko progresiñuan

1910ian, *“Banco de Pruebas barrixarekin batera”* martxa hartu eban proiektuak hainbat jauzi estrategiko edo garrantzitsu izan dittu urte guzti hauetan. 1912xan udal korporaziñuak *“Armerixa, Dibujo eta Arte eta Ofiziuen Eskolia”* sortzia erabagi eban. Lehelengo harrixa 1913ko urtarrillaren 6xan ipiñi zan eta klasiak Frontoiko

Eskolian hasi ziran emoten. Julian Etxeberria izan zan lehelengo zuzendarixa eta 1914ko ekaiñaren 24an inaugurau zan ofizialki behin betiko Armerixa Eskolia. Pio eta Toribio Zulaika, Eusebio Zuloaga eta Luis Ormaetxea (hau izan zan zentroko ikaslia izan eta gero irakasle bihurtu zan lehelengua) izan ziran hasierako urte haietako “aitzindarixak”.

Eskolia, hasiera hartan, hiru kurtsorako proiektatu zan, bakotxa 25 ikasliekin eta egunez emoten ziran klasiakin. Gerra

ostian, eraikiñaren lau ormak besterik ez ziran zutiñik geratu; baiña horri be bueltia emotia lortu eban, Ignacio Anitua eta Esteban Bolunbururen lanari esker, batez be. 1954an Eskolia zittuan *“bienes muebles e inmuebles”* guztiak Hezkuntza Ministeritzari emon jakozen *“millioi bat pezetaren prezio sinbolikuaren truke”*. Eskolaren anpliazioñ bariña inaugurauko da 1960xan: urte hartan 460 ikasle eguazen. Ez hori bakarrik: 1920xan Mekanika espezialidadia ezarri eban, eta be-



Jose Luis Novoa Armeria Eskolako zuzendarixa, Miguel de los Toyos alkatia eta Joxe Mari Ulazio zentroko Ikasle Ohien presidentia.

rogei urte geruago Elektronikiaren urtia izan zan. Eta hurrengo urtian laborategixak muntau ziran. Jarraixan etorriko ziran mikromekanika ikasketak, *“zentro pilotua hamen egiñaz eta Eibar Suitza txiki bat bihurtuz”*. Ingenierixa Teknikua hamarkada bat geruago helduko zan zentrura, *“1972-73 ikasturtian, gabaz”*. Kalidade Kontrola probisionalki 78-79xan hasi zan eta geruago sortuko zan, eskolatik bertatik, Tekniker ikerketarako zentro barrixa: 1980xan osatu zan Teknikerrekoko lehelengo zuzendaritza taldea eta handik hiru urtera aukeratu ziran zentro barriko lehelengo ikasle bekadunak. Aurretik, 1981ian Armerixa Eskolia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Konsejerixara pasau zan.

Armerixa Eskolia aspalditik daka beste alkarte bat, eskolari lotutakua eta indar berezixarekin: Ikasle Ohien Alkartia 1950eko abenduaren 1ian sortu eban eta oin be Zentenerixuan buru-belarri sartu da.

Urteko ekitaldixak

40-45 lagun taldeko batzordiak antolatutako programaziñuaren barruan, hainbat bisita eta errekonozimenduekin batera, erakusketa fisikua zabalduko da ekaiñian *“Udaletzeko patixuan”* eta bi-hiru kontzertu izango dira (maiatzaren hasieran Su Ta Gar Untzagan, Sanjuanen bueltan Bilboko Orkestra Sinfonikuaren *“Itoitz Suite”* Coliseoan). Memorial Valenciaga proba eskola aurrian amaittuko da. Urte guztian presente.

MAXIMO ARGOITIA ARRIETA

II. urteurrena (2010eko urtarrilaren 26an hil zen)

*Beti izango zara
gure bihotzetan*

ZURE FAMILIA



TEEN-
AJEA

Ondarrutarra da David Perez, baina Eibarren ematen du bere bizitzako zati handiena. Poeta da, poeta soziala, eta liburu bi kaleratu ditu. *Mis Cualidades* eta *Celeridad*. Seguru ez direla bakarrak izango, proiektu asko dituelako esku artean. Libururen bat erosi nahi izanez gero, berari idatzi zuzenean: dorado.etiem@hotmail.es.

DAVID PEREZ, poeta soziala:

“Idazteaz bizi naiz: behar dudana da”

- Poeta soziala zarela diozu. Zergatik definizio hori?

Kalean, gizartean, prentsan eta bestelako tokietan gauzak ikusten ahalegintzen naizelako eta, ondoren, horiek jasotzean, nire iritzia paperean islatzen saiatzen naizelako. Ikusi egiten dut, entzun eta iritzia eman. Kaleratu dudan azken liburuan, *Celeridad* izenekoan, nire barrenak urratzen ditut. Nahiko latza da, horrela ikusten baitut mundua. Bestetik, *Mis Cualidades* nire lehen liburua askoz ere pertsonalagoa da: maitasun kontuak, sentimenduak, familia... 14 urte nituenetik idatzi ditudan olerkiak daude bertan. Liburu batetik bestera demaseko aldaketa dago. Idazle ezberdin bik idatzi dutela dirudi.

- Dorado Etiem sinatzen dituzu liburu biak. Zergatik?

Ezizena da. Izen hori zergatik erabiltzen dudan erantzun behar badizut, hil egin beharko zintuzkedan (barreak). Nire izena, David Perez, oso arrunta da eta pentsatzen dut Dorado Etiem hobeto saldu daitekeela, gainera gustatzen zait. Baina ez da nagusikeria kontua.

- Olerkiak idazten 14 urterekin hasi zinela aipatu duzu...

Beti izan naiz kontuzalea. Abestien tituluak aldatzen nituen, adiera barregarriak ematen saiatzen nintzen... lehen positiboagoa eta barregarriagoa nintzela pentsatzen dut, tamalez (barreak). Denari ematen nion kutsu komikoa, barregarria, baina orain zaputzagoa naiz.

- Poesiaz gain, narratiba ere idazten duzu?

Gauza askotan sartzen naiz, baina gero ez dakit bakoitzari nondik heldu (barreak). Bost liburu irakurtzen eta hiru idazten dihardut. Maitasunaren gainean saiakera idazten dihardut... autolaguntza liburuan amaituko dena (barreak). Lagunekin elkarriketatu naiz, jendearekin egin dut berba, nire esperientzia pertsonalak ere balio izan dit... erlazio bat edo beste ere salbatu dut nire aholkuekin! Entsegua amaitzeko bost urte beharko ditut.

- Lana ala afizioa da idaztea?

Idazteaz bizi naiz; dirurik irabazi ez arren, behar dudana zerbait baita. Informatikaria naiz eta horrekin irabazten dudana diruarekin egiten ditut liburuak.

MAITANECASTILLOOTAOLA

V. urteurrena

“Zurekin beti oroitzen gara eta zure irribarreak gure bihotzetan jarraitzen du”

ZURE KUADRILLA

BERE ALDEKO MEZA egingo da urtarrilaren 28an, **zapatuan**, San Andres parrokian, arratsaldeko **19.00etan** hasita.



UNI Eibar-Ermuako ikasleak eskualdeko hainbat eskolatan ibili dira bizimodu osasungarriak ezagutzera ematen. 'Eraiki zure osasuna, eraiki zure bizitza' lelopean, ohitura osasuntsuen berri eman diete Eibar eta Ermuako ikasleei.

Bizitza osasuntsua eskolatan zabaltzen

Eusko Jaurritzak bultzatuta, UNI Eibar-Ermuak Osasunaren Berrikuntza eta Sustapen plana dihardu garatzen azken urteotan 'Eraiki zure osasuna, eraiki zure bizitza' lelope-

an. Agintariek zentro honengan ipini dute euren konfidantza, eta ikasle eibartar eta ermutarrek ekimen honen bitartez itzultzen dihardute konfidantza hori.

Umeen artean gero eta obe-



Bizimodu osasungarria zabaltzen jardun dute, batez ere, programa honetako parte-hartzaileek.



sitate kasu gehiago dago eta gazteen artean sedentaris-moa nagusitzen hasi da. Horren aurrean, UNIKo ikasleak eskolaz eskola ibili dira bizimodu osasungarriaren balioak gazteen artean zabalduz. Hitzaldiak, azterketa fisikoak, jarrera-tratamenduaren ikerketak

eta analisi antropometrikoak egin zituzten UNIKoek eskolatan. Ikasleak bizitza osasungarriak bizimodu sedentarioaren aurrean dituen onuretzak konturatzera zen helburua eta, era berean, sedentaris-moak osasunean izan ditzazkeen ondorio negatiboak azaltzea.


Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

Ehun urte baino gehiagotan Aldatze Eibarko heziketan errefinamendu izan da. Gure inguruko beharrei erantzutez, garritasun pedagogiko, hizkuntzak, teknologia berriak, EPOM... izan dira eta dira oraindik gure lanaren oinarriak.

ALDATZE DANOK GARA I. Jardunaldia

Talerrak, Bertso esloak,
Ikusentzunezkoak...

Urtarrilaren 28an
11:00etatik 13:00etara



HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDE OSO BAT HEZTEN

ELEBIDUN IKASTETXEA

2 URTETIK 18RA BITARTERKO BASLE NESKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATERO FROGA %100EK GAINDITU DITUZTELARIK

IKASLEEN BANAKAKO JARRAIPENA

ESKOLAKO ETA LANERAKO ORDUTEKIAK BATERAGARRI EGITERAKO ZERBITZU ESKAINTZA

aldatze



ALDATZE

Colegio Santa María
de la Providencia

Aldatze Kalea, 5 - Eibar - Gipuzkoa
Tel.: 943 70 11 50 - aldatze@aldatze.org

Nafarroako Unibertsitatean Biologian lizentziatua, San Diegora egin zuen jauzia Arrate Mallabiabarrenak 1995. Bartzelonan irakasle jardun eta berriz Kaliforniara bueltatu ostean, atzera ere Bartzelonan dihardu lanean eibartarrak, Erregulazio Genetikoko Zentroan.

AMAIA MALLABIABARRENA, biologoa:

“Finantziario ezagatik ikerketa zientifiko asko geldiarazi dira”

- Bartzelonako Erregulazio Genetikoko Zentroan (EGZ) biologoa zara, baina zein da zehazki zure betebeharra?

EGZko Mikroskopia Optika Aurreratuko Unitatean egiten dut beharra. Diseinu esperimentalean euskarria eta ditugun mikroskopia ekipamenduen erabileran formakuntza eskaintzea da nire betebeharr nagusia.

- Munduko hiru mikroskopio handienetarikoa bat darabilzu eskuetan. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Mikroskopio handienaren kontzeptua nahiko erlatiboa da. Daukaguna da mikroskopio konfokal biren aparteko konfigurazioa, fotoi bateko laserrez gain, euren artean multifotoi laserra elkarbanatzen dutena. Ekipoa instalatu zenean, 2009ko urrian, horrelako konfigurazio konplexu eta aurreratua zuen lehen zentrua ginen.

- Zer ikustarazi dezake mikroskopio horrek, besteek ezin dutena?

Multifotoi mikroskopio baten erabilera na-

gusia da sakon dauden gauzak ikusi daitezkeela eta, gainera, denbora luzeagoz. Hau da, kalte gutxiago egiten duen argidun iturri bat erabiltzea gauzak denbora gehiagoz edo sakonago ikusteko. Hori oso garrantzitsua da ikusten ditugun gauzak biziak direnean. Gaur egun, Super Bereizmeneko beste ekipoa bat daukagu (Espainian bi daude bakarrik) eta gauzak askoz ere txikiago ikusten laguntzen digu (zuzenago esanda, oso hurbil dauden gauza bi ikustea uzten digu).

- Amerikako Estatu Batuetatik etorri zinen EGZn lan egitera. Zergatik itzuli zinen? Nolako izan zen hango esperientzia?

San Diegora (Kalifornia) 1995ean joan nintzen doktoratu ondoko beka batekin eta Kaliforniako Unibertsitateko Biologia Zelulareko Departamenduan (UCSD) lan egin nuen lau urtetan. 1999an Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateara etorri nintzen irakasle elkartu bezala lan egiteko bost urtez. Gero, 2005an, San Diegora bueltatu



nintzen lau urterako eta 2009az geroztik EGZan dihardut lanean. San Diego toki ederra da, bai bizitzeko, bai zientzia maila altuan egiteko. Lehen aldian arrazoi profesionalengatik bueltatu nintzen; bigarrenean, aldiz, pisu gehiago izan zuten arrazoi pertsonal eta familiakoek.

- Alde handia dago Kalifornian lan egitearen eta, kasu honetan, Bartzelonako EGZn egitearen aldean?

Egia esan, kasu zehatz honetan, ez dago alde handirik UCSD eta EGZren artean. EGZ atzerriko ikerlarien etortze handiena duen Espainiako I+G zentrua da. Ikerlarien hartu-eman handia dago. Horrek izpiritu gazte eta internazionala ematen dio beti zentroari. Maila profesionalean gure ekoizpen eta ezagueraren arabera gara ebaluatua, eta horrek jendea lehiatzera eta duen guztia ematera behartzen du. Hemen ez du balio “nik nire plaza daukat eta orain atsedena hartu dezaket” kontzeptuak.

- Zein da zientziaren egoera Espainian?

Urte batzuk gehiago iraungo duen momentu oso txarrean gaude. Denetarako dirurik ez badago, lehenetsunak jarri eta diru hori non gastatu erabaki beharko da. Eguzki eta hondartzaren herrialdea izan gaitzake, edo I+Gan inbertitu. Nire botuak zerbaiterako balioko balu, bigarren aukerarekin geratuko nintzateke.

- Krisiak ikerketa zientifikoko prozesuak geldiarazi ditzake?

Geldiarazi ditu jada! Finantziario ezagatik proiektu eta ikerketa lerroak gelditu behar izan dituzten ikerlari asko dago.

“Eibarko oso oroitzapen onak ditut”

- AEBn eginduzu lan eta, orain Bartzelonan. Eibar faltan botatzen duzu?

Egia esan, ezin dut esan Eibar faltan botatzen dudunik. 18 urtekin Iruñera ikastera joan nintzen eta, ordutik, Eibarren egon naitzen bakoitzean denbora laburrerako izan da. Hala ere, oso oroitzapen onak ditut Eibarren gainean eta maite dudana pertsona asko dago han. Familia kontuengatik, Euskadira noan bakoitzean Lekeitiara joaten naiz, baina denbora edo aitzakiaren bat badut, Eibartik pasatzen naiz. Ilusio handia egiten dit jende ezaguna ikusteak.

- Beti izan duzu argi biologoa izatea nahi zenuela?

Ez. Zientziaren gaineko ikasketak egitea nahi nuen eta biologia beti gustatu izan zait. Karreran zehar jo nuen biologiaren ikerlari arlorantz.

- Etorkizunean posible ikusten duzu zure lana, Eibarren ez bada, Euskal Herrian egitea?

Eibarren zail edo ezinezkotzat jotzen dut. Baina CIC-Biogune edo Ikerbasquek Euskadin bultzatzen dituen beste zentru batzuetan, zergatik ez? Ez nuke arazorik izango. Euskadi asko ari da laguntzen eta inbertitzen ikerkuntzan, emaitza positiboekin gainera.



Kanpoko
hotzaren
aurrean...



...ETXEAN
BERO-BERO

2012ko
urtarrila

fonta.amana@gmail.com

AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA ■
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Faxa. 943 254 929

Fontanería Jardines

Jardiñeta, 11 B fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA
ITURGINTZA

Tfnoa. 943 20 10 30
Faxa. 943 20 72 24

Helbide
Egigurenarren, 18
berria

Gasa
Bereizketa
Lur Bero
Klimatizazioa
Eguzki Energia
Ondarria
Kogenerazioa
Energia Alternatibak

Gisa
Kalefakzioa
Suelo Radiante
Klimatizazioa
Energia Bero
Geotermia
Cogenerazioa
Energia Alternatibak

MUGICA
ITURGINTZA

Tfnoa. 943 20 10 30
Faxa. 943 20 72 24

Helbide
Egigurenarren, 18
berria

Errebisioa: arriskuak saihesteko zuzenena

Norberaren etxean seguru sentitzea ezinbesteko baldintza da edozeinentzat. Horregatik, komenigarria izateaz gain derrigorrezkoa ere bada etxe barruan dauzkagun hainbat gauzari arreta eskaintzea eta funtzionamendu egokirako beharrezkoa den mantenimendua behar den moduan zaintzea. Errebisioa ez egiteko aitzakiarik onartzen ez dutenen artean, garrantzitsuenetakoak gasa eta bere instalazioarekin lotutakoak daude. Are gehiago: gas instalazioak aldiro-aldiro kontrolatzea derrigorrezkoa da, egoera onean daudela ziurtatu eta, hartara, etxe barruan zein in-



guruan bizi direnen segurtasuna bermatuta geratzeko.

Gas-zirkuituen kasuan, enpresa hornitzailea gurekin harremanetan ipiniko da errebisioa egiteko sasoia ailegatzean. Enpresako beharginak

izango dira lau urterik behin instalazioaren egoera eta funtzionamendu egokia aztertzeko arduradunak. Horregatik, eta iruzur edo bestelako gaizki ulertuak saihesteko norberaren hornitzailea ez den bestelako enpresen eskaintzak baztertzea edo ez onartzea da biderik zuzenena.

Berogailu eta galdaren kasuan, berriz, derrigorrez egin beharreko azterketak urte birik behin egin beharko ditu marka horren laguntza-teknikorako zerbitzuak. Horrelakoetan, baina, laguntza teknikoa eskaintzen duen zerbitzuari deitu eta abisua emateko ardura norberarena, hau da, erabiltzailearena da, ez enpresarena



SARGORI

BEROKUNTZAK S.L.


**GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA**

**San Agustín, 2-4 - J lokala
Tel. 943 53 02 01 Faxa. 943 53 15 03**

VENTANAS ONA LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Bidebarrieta, 28 - behea
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358
ventanas.ona@gmail.com www.ventanasona.com



ELEKTIBAR, S.L.U.
ELEKTRIZITATEA
PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK

- * Denetariko **ERREFORMAK**
- * **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- * **ATE AUTOMATIKOAK**
- * **BERO URDINA**

JOSU BENGOA

Indalezio Ojanguren 2, behea, 27 EIBAR
☎ 943 70 05 42 Faxa: 943 53 02 31

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Zura: eraikuntza jasangarria helburu

Azken urteotan egurra edo zura indartsu sartu da eraikuntza-sektorean, batez ere ingurumenarekiko errespetua, eraikuntza jasangarria eta horrelakoak

zaintzen dituztenen artean. Ekologikoa ez ezik, gainera, bestelako abantailak esakintzen dituen materiala da: zurez egindako etxea, lehorreko eraikuntza den aldetik, beste

eraikin batzuk jasotzeko baino denbora gutxiago behar izaten da, besteak beste oreak, igeltsuak eta bestelakoak lehortzeko behar izaten duten denbora eskatzen ez duelako. Bestalde, energiari oso modu eraginkorrean eusteko aukera ematen du eta, beraz, etxebizitza freskatzeko zein berotzeko behar den erregaian lortutako aurrezpena oso garrantzitsua da. Gainera, hori guztia erosotasunari eta bizitza-kalitateari uko egiteko premia barik.

Zurak, beste material batzuek ez bezala, ez du kutsatzen, garbia da, eta ingurumena deskontaminatzen eta garbitzen laguntzen du. Erresistentziari begiratzuz gero, pisuari edo zamari arazo barik, primeran eusten dio. Arina ere bada, baina lurrikaren eta bestelakoen aurrean oso gogor eusten dio estrukturari, materialak duen malgutasunari esker. Ezaugarri horiek guztiak kontuan hartuta, beraz, ez da harrizkoa zurak gero eta jarraitzaile gehiago izatea.



IGA S.L. KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 –EIBAR–
Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95
Faxa. 943 70 24 95 Mobila. 670 21 46 25

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:
Birjiñape, 1 behea –EIBAR–
Tfnoa. 943 20 20 40

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:
Zeharkalea, 12 –ERMUA–
Tfnoa. 943 17 69 56



ACHA Kristaldegia

Errekatxu, 3 EIBAR

☎ eta faxa: 943 20 39 03 c.acha@euskalnet.net

CLIMALITekin
isolatzaile onena lortuko duzu
akristalamendu bikoitzaz

Barrena, 26 -behea
tel. 943 121 642 / fax. 943 204 307
ec@electricidadcuadra.com

ELECTRICIDAD

CUADRA EG

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK
INDUSTRIA MANTENIMENDUA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
KALEFAKZIOA

METALEZKO ERAIKUNTZAK
ALUMINIOZKO ETA
PVC-KO AROZTEGIA

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tf: 943 12 13 67 Fax: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26 Tf: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net




Biomasarekin elikatutako bero-iturriak

Energia berriztagarrien alde daudenak gero eta gehiago izanik, eta bezero horiek izan ditzazketen premiak modurik egokienean bete ahal izateko, merkantuan dagoen eskaintza ere moldatzen joan da. Horrekin batera, orain dela gutxira arte gehienondako ezezagunak ziren berogailu, galdara eta tximiniak gero eta tarte handiagoa betetzen hasi dira. Horren adibide dira "pellet" direlakoekin elikatzen diren berogailuak eta etxeak edo lokalak berotzeko erabiltzen diren galdara eta tximiniak. Abantailak behar duten erregiarekin hasten dira: "pellet" izenekoa darabilte, hau da, egur zein landare-hondakinetatik abiatuta materiale birziklatuarekin fabrikatutako bolatxoak. Horiek egiteko erabiltzen diren hondakinak eta egur zatia, gainera, sarritan mendiak garbitu eta gero pilatutakoak direnez, basoen garbiketa bultzatu eta, be-



raz, sua pizteko arriskua gutxitzen laguntzen dute.

Baina ingurumenaren zainketari lotutakoez gain bestelako abantaila batzuk ere eskaintzen dituzte: ekologikoak diren heinean, horiek ipintzera animatzen dizkiete instituzioek eta diru-laguntza ematen diete. Gainera, kontsumotik eratorritako gastuak beste mota batzuetako berogailuetan baino txikiagoak izatean, instalaziorako egindako inbertsioa oso epe laburrean amortizatzen dela diote adituek. Berogailuen eta tximinien kasuan, suari behar den moduan eusteko



beste erregai batzurekin baino gutxiagotan elikatu behar dira. Horregatik, etxea modu garbi eta erosoan berotu nahi dutenentzat oso aukera egokia dira. Eta gauza bera gertatzen da galdarekin.



FABRIKA ETA ERAKUSKETA
 Urtia Industrialdea- C1 pabilioia
 ERMUA - BIZKAIA
 Tfnoa: 943 170 184 Faxa: 943 170 571
 e-maila: emankor@euskalnet.net
www.emankor.com

ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ALTUKO ITXITURAK

ALUMINIO AROTZERIA

LEIHO ISOLATZAILEAK



BEIRATEAK



FATXADA ISOLATZAILEAK

ISOLAMENDU TERMIKOA



FATXADA AIREZTATUAK





Gipuzkoako Taldekako Xake txapelketa martxan

EZ DIRA ONDO HASI GO-RENGOEN MAILAN JOKATZEN DIHARDUTEN Eibarko Klub Deportiboko xakelariak. Gipuzkoako Taldekako txapelketaren lehenengo jardunaldi bietan emaitza berbera izan da: partida bat irabazi dute, beste bat berdindu eta bi galdu. Azkoitiko Anaitasuna (kan-

poan) eta Donostiako Fortuna (etxean, Deporren) jokaturako neurketetan, Jon Aranak lortu ditu eibartarren garaipen biak; ez dute zorte bera izan Olabek, Julen Garrok eta Larreategik. Bihar izango dute hurrengo jardunaldia, 16.00etatik aurrera, Mundaroren aurka Astigarra-gan jokaturako duten neurketan.

Urbateko taldeak gero eta sendoago waterpoloan

EUSKAL HERRIKO 2. MAILAKO LIGAKO ZORTZIGARREN JARDUNALDIAN, URBAT-URKOTRIKEREK SERIO HARTU behar izan zuten Oiasso Bidasoa B-ren aurkako partidua Orbea kiroldegian: aurkarien aurrean ondo irabazitako errespetuak eman zien garaipena eibartarrei (14-10). Emaitza horrekin sailkapeneko 2. postuan jarraitzen dute, Master Askartzat liderraren aurka jokatu beharreko partiduen zain. Kadete mailako taldeak erraz irabazi zion (26-10) Fortuna Tximistarri sailkapeneko azkenari, eta honek ere




bigarren jarraitzen du Liga Nazionalerako sailkapenean.

Waterpolo eskolako progresioaren adibide berri bat dugu: 13 urteko Alex Sarasua da Euskadiko selekzioak konbokatutako duen azken eibartarra. Eta, badakizue, waterpoloan egin nahi duen edonor Orbean aurkeztu eta izena eman (martitzen, eguen eta barixakuetan, 18.00etatik aurrera).

Espainiako Itzuliaren helmuga Arraten

AURTEN LEHENAGO HASIKO DA ESPAINIAKO ITZULIA, ABUZTU ERDIALDEAN IA, eta proba horretako hirugarren jardunaldiak Arrate gainean amaituko da. Abuztuaren 20ko etapa Oionen hasiko da eta, 147 kilometro bete ondoren, Arrateko santutegi ondono izango du helmuga. Kanpazar eta

Areitio pasata sartuko dira txirrindulariak gure herrian azken igoerari ekiteko. Proba horrek aurretik ere izan du Arraten helmuga, azken aldiz 1974an, Agustin Tamamesen garaipenarekin. Miguel de los Toyos Eibarko alkatea Iruñean izan zen herenegun, bertan egin zen probaren aurkezpena.



AURREMATRIKULA ZABALIK 2012-2013 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133
943 121 698
www.lasalleieibar.com



Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era (biak barne)

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (D ereduak)
DBH (B eta D ereduak)

La Salle Isasi eta Azitain Ikastetxeetan



Afizionatuen mailako hiru partidu gaur Astelenan

UDABERRI TORNEOKO JARDUNALDIA JOKATUKO DA GAUR ARRATSALDEZ Eibarko "katedralean" eta Klub Deportiboko hiru bikote izango dira lehian. Arratsaldeko 20.00etan hasiko den jaialdian, alebin mailako norgehiagoka jokatu da lehenengo: hor Iriondo-Ibarluzea bikoteak Zestoako ordezkariari egingo die aurre. Jarraian, kadete mailan, Arrillaga eta Urionabarrenetxea ahaleginduko dira Lazkaoko bikotea menderatzen eta, amaitzeko, jubenil mailako neurketan, Zubizarreta eta Ruiz tolosarrei irabazten saiatuko dira.



Zubizarreta eta Ruiz jubenil mailako bikotea.

Patxi Usobiaga Gipuzkoako Foru Aldundiak saritua

DONOSTIAKO MIRAMAR JAUREGIAN EGINDAKO EKITALDIAN, Gipuzkoako Foru Aldundiak 49 kirolari eta bost talde saritu zituen azken denboraldian egindako lanarengatik. Sari horien artean, bereziak izan ziren bi: mendeurrenagatik Fortuna Kirol Elkarteari emandakoa eta, bestetik, Patxi Usobiaga Eibarko eskalatazailari ibilbide profesional oparoarengatik emandakoa. Eskalada lagatzera behartutako kirolari handiak errekonozimendu asko jaso ditu azken aldirian.



Usobiaga eta Fortunako ordezkaria, Diputazioko agintariekin

Ligatiroko Gala El Corte Inglés-ean

AZKEN DENBORALDIAN ERREGULARTASUN HANDIENA ISAN DUTEN TIRATZAILEEK

dagozkien sariak jasoko dituzte gaur arratsaldean, 19.30etatik aurrera, El Corte Inglés-eko areto nagusian egingo den Ligatiroko Sarien ekitaldian. Kirol tiraketarekin eta ehizarekin lotutako ekitaldi horrek ligatiro.com helbideko erreferentziei jarraituko dizkie.



Deportiboko eskiatzaileak Euskadiko txapelkun Belaguan

AURREKO ASTEBURUAN BELAGUAKO "LA CONTIENDAN" JOKATUTAKO EUSKADIKO ESKI TXAPELKETAN, herriko ordezkari bat baino gehiago izan zen podiumean. Elurraren egoera eskasari eta zirkuitu gogorrari aurre eginez, Leire Garatek (seniorretan), Maialen Zamakolak (kadeteetan) eta Jone Saizek (infantiletan) lehenengoa postua eskuratu zuten euren probetan, bai skating modalitatean baita klasikoan ere: bietan ere bost kilometroko distantzian jokatuak txapelketetan. Naia Carballo bigarrena izan zen seniorretako bi probatan.



Herriko saskibaloiko talde biak sasoi onean jarraitzen dute

RUIBALEK AGINTE KOLPEA EMAN ZUEN ZAPATUAN IPURUAN Donostiako Alde Zaharra B-ri 65-36 irabaziz. Aurkari zuzena bazen ere hiriburuko taldea, eibartarrak erraz nagusitu ziren eta, horrela, egonkortu egin dira sailkapeneko postu gorenean. Atsedenealdian markagailuak 38-21 erakusten zuen eta Mikel Arnaiz izan zen saskiratzaile onena, 16 punturekin. Hurrengo neurketa Donostiako Pako Yoldi kiroldegian jokatu

dute eibartarrek, bihar 20.00etan hasita, Cafés Aitona B-ren aurka.

Multzo bereko erdi aldeko postuetan, goraka begira, dago Katu Kale. Azken jardunaldian taldeak zituen bajei aurre egin eta, hainbat neke tarteko, 65-57 irabazi zion Oiartzungo Saskilagunak-i. Emaizta horrekin lorpen handiagoean bila jarraituko dute eibartarrak. Alarcón eta Horcajada (18 puntu bakoitzak) izan ziren saskiratzaile onenak.



Eibarko talde biek sailkapeneko goiko postuei eusten diete.

Hierros Anetxeren lehenengo porrota

ORDIZIAKO AMPO-K 24-26 IRABAZI ZION UNBEN EIBARKO LEHEN TALDEARI eta, emaitza horrekin, sailkapeneko bigarren postura egin dute jauzia, Zarautzi aurrea hartuz. Eibarko taldeak denboraldian galdu duen lehenengo partidua izan zen zapatukoa; hala ere, bost puntuko aldea ateratzen dio bigarrenari sailkapenean. Nesken taldeak, bestalde, 32-7 galdu zuen domekan Iruñean, bertako La Unica talde indartsuaren aurka jokaturako neurketan.



Gipuzkoako judo txapelketa domekan

KALAMUA JUDO TALDEKO LAU ORDEZKARI IZANGO DIRA ETZI Hernaniko kiroldegian jokaturako diren kadete mailako Gipuzkoako txapelketan: Nekane Muguruza, Itziar Hernández, Berta Alonso eta Julen Ramón. Aurreko asteburuan, bestalde, argazkiko ordezkariak izan ziren Gasteiz Hiriko torneoan, 200 bat judoken artean.

Koskorrek sei puntuko aldea du

FOBALL ZALETUAREN KIROL-JOKOA LIGAKO LIDERRAK SENDO JARRAITZEN DU eta, azken jardunaldian, 5-0 irabazi zion Txokori. Orain arte partidu guztiak

irabazi ditu, aurreko jardunaldian Teknografik-ekin berdindu zuena kenduta, eta sailkapenean sei puntuko aldea kentzen dio Alkidebari eta 11 puntukoa Azkena Kalton tal-

deari. Azken jardunaldian, bestalde, orain arteko gol zaparradarik handiena sartu zion Alkidebak Aretori (12-0). Bihar eta etzi 16. jardunaldia jokaturako da Unben.



LEHEN KANPORAKETA ZURE HERRIXAN:
Azaruaren 1etik urtarrillaren 31ra arte (EIBARREN, BIXAR, 28xan)

HERRIALDEKO KANPORAKETA:
Otsailaren 24, 25 eta 26xan

EUSKAL HERRIKO FINALA:
Arbizun (Nafarroa Garaiko Sakanan) martxoaren 17xan

Herrialdeko finaletan: txapelak, garaikurrak eta sarixak

Parte-hartzaille bakotxarentzat: oroigarria parte-hartzia eskertzeko

**Urtarrillaren 28xan
zapatuan**



**Klub Deportibuan
16:00etan**

SARIXAK

TXAPELDUNAK
Txapela, garaikurra, 3.000 euro eta lau lagunentzako biakia naziñoartera

TXAPELDUN-ORDIAK
Garaikurra, 1.500 euro eta bi lagunentzako biakia

3. SAILKATUTAKO BIKOTIA
750 euro eta asteburuko egonaldixa lau lagunentzat

4. SAILKATUTAKO BIKOTIA
500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako matrikula bi

5.etik 16.era SAILKATUTAKO BIKOTIENTZAT
Sari txikixaguak

Elkarrekin margotzen dute tailer batean eta euren lanak elkarrekin erakustea erabaki zuten. Topalekuan batu ginen Mari Fran Ereña eta Elisabet Egurenekin (Charo Gil ez zegoen, txandaka egoten baitira), eta euren lanen eta margolaritzarekiko duten pasioaren gainean egin genuen berba.



MARI FRAN EREÑA ETA ELISABET EGUREN,
margolariak:

“Disziplina behar da margotzeko”

- Nolako lanak daude ikusgai erakusketan?

Hiru margolarien lanak aurkeztuta, hiru ikuspuntu ezberdin azaltzen dira. Estilo ezberdinetako lanak aurkitzen dira: itsasoaren ingurukoak, abstraktoak, figuratiboak, naturaren gainekoak... Kolore asko dago, tonu leunekin, tonu biziekin... denetarik.

- Zergatik egin duzue erakusketa bateratua?

Elkarrekin denbora pasatzen dugunez eta horrelako zerbait egiteko ideia aurretik geneukagunez, egitea erabaki genuen.

- Elkarrekin margotzen duzue? Bakoitzak bere etxean?

Sasoi batzutan bakoitzak bere tallerrean margotu izan du, baina orain hirurok elkarrekin margotzen dugu margolaritza estudio batean.

- Nola batzen zarete?

Orduategia daukagu zehaztuta: martitzen eta eguenetan margotzera joaten gara... eta ez gaitzela molestatu! Etxean margotzen ari bazara, beti bururatzten zaizu beste zerbait egiten hastea, errazago galtzen duzu arreta. Disziplina pixka bat eduki behar duzu eta orain egiten dugun moduan ondo moldatzen gara.

Izan ere, batek margotzeko gogoia ez badauka, badaki beste biak joango direla eta horrek animatu egiten du zerbait egitera. Gainera, elkarri laguntzen diegu lanak egiteko orduan: “Kolore hau leuntzen baduzu, hobeto geratuko litzateke”, adibidez.

- Noiztik diharduzue margotzen?

ELISABET: Nik urteak eman nituen Kultur margolaritza klaseak ematen, orain Maite Arriaga egiten ari dena. Han ezagutu ginen eta ordutik jarraitu dugu margotzen.

MARI FRAN: Nik 12 bat urte daramatzat margotzen.



- Nola sortzen da afizioa?

MARI FRAN: Konturatu gabe. Probatzen hasi, gustatu eta irten egiten zaizu. Batzueri ez zaie irtetzen eta utzi egiten dute.

- Eta ordura arte ez zenuen margotzen?

MARI FRAN: Oleoa inoiz ez nuen hartu, ezta mihise bat ere. Marraztu bai, horretan jardun nuen, baina margolaritzan ez.


ELISABET: Nik txikitatik izan dut afizioa. Koloretako arkatzak eta klarionak nire pasioa ziren. Harri txikiekien ere margotzen nuen.



Aratosteetarako kartela aukeratu dute

MARTITZENEAN BATU ZEN LEIRE KAREAGAK, ASIER LÓPEZ DE VIÑASPREK, Marije Martínezek eta Esther Kareagak osatutako Aratosteak 2012 kartel lehiaketaren epaimahaia eta aho batez nagusien mailako lehen saria “Westerneibar” izenburuko lanari ematea erabaki zuten. Aurtengo Aratosteak iragartzeko erabiliko den kartela Mikel Treviñok, Amaia Ajuriage-rrak eta Joseba Aranzabalek

egin dute. Umeen mailan, 11 eta 14 urte bitartekoen artean saria Ainhitze Lasak (11 urte) eraman du, “Galtza koloretsua” lanarekin eta 10 urtera artekoen artean irabazlea Malen Azurmendi (8 urte) izan da, “Kokomarruak II” kartelarekin. Lehiaketan 31 nagusik eta 52 umek hartu dute parte eta irabazleei sariak Aratoste Zapatuan (otsailak 18an) banatuko zaizkie, 13.30etan Untzaga plazan.



Patxi Usobiagaren txotx

BARIXAKUAN GIRO EZINHOBEOAN ZABALDU ZUEN TXOTXA PATXI USOBIAGA ESKALATZAILEAK, sagardo denboraldi berriari hasiera ofiziala emateko Iruki sagardotegiak antolatutako ekitaldian. Arratsaldetik ekin zioten jaiari Ipurua aldean, sagardotegi in-

guruan kalejira eginda eta lehenengo sagardo kupela zabaldu aurretik sagardo-dastaketa ere egin zuten, Egoitz Zapiainek gidatuta. Gonbidatu berezia izan zen kirolari eibartarrarekin batera egindako afariarekin agurtu zuten sagardoari eskainitako jardunaldi biribila.

Lagun Taldearen ikuskizun arrakastatsua

ZAPATUAN ESTREINATU ZUTEN LAGUN TALDEA ADIMEN URRITASUNA DUTENEN ELKARTEKOEK euren



ikuskizun berria: "Mentiras a euro". Betiko moduan, arrakasta handia izan zuen Lagun Taldean diharduten

gazteek zein begiraleek eskainitako interpretazioak. Hurrengo zapatuan, hilaren 28an berri ere eskainiko dute ikuskizun berbera, 17.30-etan Hezkuntza Esparruko (Unibertsitate Laboraleko) aretoan (sarreak euro bat balio du).

Umeendako opera saioa bihar Coliseoan

BIHAR 17.00-ETATIK AURRERA "LA PEQUEÑA FLAUTA MÁGICA", MOZARTEK IDATZITAKO OPERAREN moldaketa eskainiko dute Opera Divertimento taldekoek Coliseoan. Lau-bost urtetik gorako umeentzat zein familientzat orohar egokia den lanak ordu bete inguruko iraupena izango du. Akto-



reen jarduna kantuekin tartekatzen joango da fantasiaz gainezka egiten duen istorioa kontatzeko: aspaldiko sasoieta Taminok eta Papagenok, Ilargi Erreginaren laguna den Oscurillak engainatuta, Eguzki Erregeak bahituta duen Pampina salbatzeko bidaiari ekingo diote. Hortik aurrerakoak jakiteko, bihar Coliseora joanda horretarako aukera izango da. Sarreak ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago ipiniko dituzte salgai leihatilan.

Pailazoak Gurasoak Berbetan egitasmoko kideentzat

EUSKARA PRAKTIKATZEKO HAUR HEZKUNTZAKO GURASOAK ELKARTZEN DITUEN MINTZAPRAKTIKA egitasmotaen barruan, Zurrumurru taldearen "Pantxika eta Txinparta" ikuskizuna eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak datorren otsailaren 12an (domeka). Hala ere, Gurasoak Berbetan-eko kideez gain ...eta kitto! Euskara Elkarteak bazkideentzako

ere hainbat sarrera gorde ditu ...eta kitto!-k. As-telehenetik aurrera ...eta kitto!-ra (Urkizu, 11 solairuartea) etortzen diren bazkideek (Haur Hezkuntzako seme-alaben guraso edo senideak) lau sarrera hartzeko aukera izango dute, doan (telefonoz ez da sarrerarik gordeko). Antzerkia goizeko 11.30etan izango da Portaleko areto nagusian.

laburrak

TESIAK ON-LINE

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Udako Euskal Unibertsitateak euskaraz idatzitako doktorego tesi digitalizatuak www.euskadi.net atarian ipintzen dihardute, edozeinek kontsultatzeko moduan. Dagoeneko 202 tesi daude kontsultagai.

IRIGOIENEN ARGAZKIAK

Martxoaren 2ra arte Jose Luis Irigoien argazkilariaren erakusketa egongo da ikusgai Malagako Sala Aula7-Liceoan (Pza. Carb-on, 3-2°).

PLAY-BACKA DOMEKAN


...eta kitto! Euskara Elkarteak aratosteetako egitarauaren barruan antolatzen duen play-back lehiaketa, zapatuan egin beharrean domekan egingo da aurten, otsailaren 19an. LH 5-6. mailetakoko ikasleei zuzendutako lehiaketak arrakasta handia izaten du urtero, eta azken urteetan 20 bat taldek hartzen dute parte. Hiru sari banatzen dituzte, mozerro, koreografia eta interpretaziorik onenari, eta epaimahaia Narruzko Zezen taldeko kideek osatzen dute. Arratsaldeko 17.00etan izango da Untzagan egongo den karparen barruan.

MAIALEN LÓPEZ IGLESIAS

2. URTEURRENA (2010-I-30)

MAIALEN, ZURE IRRIBARREA EZ DUGU AHAZTEN.

Zure lehengusu-lehengusina, osaba-izebak eta amamaren partez.



Gazteen piano jaialdia domekan

AZKEN URTEOTAKO MARI TXARI JARRAITUTA, PIANO IKASTEN DIHARDUTEN GAZTEEK EMANALDIA ES-KAINIKO DUTE Coliseoan, Andoainean jokatuko den pianojole gazteen lehiaketara joan aurretik. Domekan 12.30etan hasiko da III. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia eta bertan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek jardungo dute, Isabel Laspiur irakaslearen eta Musikum akademiako ikasleekin batera. 11 urtera arteko piano bakarlariak Jaione Artetxe, Miren Ferrero, Imanol Miguel,

Lucía Juárez, Ane Treviño, Ibane García eta Julen Baroja dira; 14 urtera artekoak Nuria Robleño, Iñigo Carmona, Julen Leturiondo, Arrate Baroja, Iker Marcos, Lucía Irigoien, Nerea Etxebarria, Miren San Martin, Elisabet Unamuno, Maddalen Yarza, Ainhitze Lasa eta Nerea Gorostiza; eta 18 urtera artekoak Iñigo San Martin, Cristina Gisasola, Ander Curiel eta Nerea Unamuno.

Lau eskutara joko dutenak, berriz, honako hauek izango dira: Malen Txurruka eta Elen Varela, Leire Cartagena eta Miren



18 urtera arteko piano ikasleek eskainiko dute kontzertua.

Loiti, Josu Abalos eta Martin Saro, Itsaso de Diego eta Leire Treviño, Arianna Macheras eta Aitana Ronchetti, Julen Pisa eta Nara Tytgat eta Nerea Aja eta María Alaez (11 urtera arte); Aizpea Goitandia eta Marina Laspiur eta Jon Azkune eta Jor-

ge Lahidalga (14 urtera arte); eta Amaia Alberdi eta Ane Juárez, Amaia Lahidalga eta Andrea Pérez eta Andrea Lupeña eta Ane Ribaguda (18 urtera arte). Horiek guztiak Andoainean izango dira, otsailaren 4an eta 5ean jokatuko den lehiaketan.



Ustekabe txarangakoak Donostiako danborradan

AURREKO ASTEAN, EGUEN GAUERDIAN HASI ETA BARIAXKU GOIZALDEKO 03.00-AK JOTA AMAITU ZUTEN Donostiako danborradan eskaini zuten aktuazioa Ustekabe fanfarrekoek. Ustekabekoek Donostiako Altza auzoko danborradakoekin batera jo zuten. San Sebastian egunean urtero egin ohi den danborradan aurtien lehenengoz hartu dute parte eibartarrek eta euria etenbarik egin zuela-eta, saioa "goitik behera bustita" amaitu zutela azaldu dute fanfarreko kideek. Hala ere, pozarren bueltatu ziren Donostia-tik: "Sanjuanetan 10 danborradatan eta Amañan, Gorlizen eta Afagik Eibarren egindakoan ere jardun ostean, Ustekabek Donostian bere instrumentuak erakusteko aukera izan zuen".

Zapatuko ipuina atzeratu dute

MIRIAM MENDOZA IPUIN-KONTALARIAK BIHAR ES-KAINI BEHAR ZUEN "Bazen behin..." izenburuko saioa aste-bete atzeratzea erabaki dute antolatzaileek, "zapatu arratsaldean umeendako beste ikuski-zun batzuk daudelako". Zapatuko Ipuina programari jarraituta, normalean hileroko azken zapatuan izaten dira saioak, baina

oraingo emanaldia hurrengo zapatara, otsailaren 4ra atzeratzea egokiago ikusi dute umeen liburutegiko arduradunek. Hurrengo asteburura atzeratutako kontakizuna 4-8 urte bitarteko umeentzat pentsatutakoa izango da, 18.00-etan hasiko da eta 50 minutuko iraupena izango du. Betiko moduan, sarrera doan eta librea izango da.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax: 943 202564

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.


ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




LUKA Vega Alberdi. Ongi etorri, maitxia!!!




Zorionak, LANDER, bixar hiru urte egingo dozuzelako. Patxo potolo bat danon partez!




Zorionak, NORA, gure artian urtebete egiñ eta etxeko bizipoza izatiagaittik.




Zorionak, MARKEL, bixar zazpi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren guztia partez.




Ongi-etorri, MAIALEN, urtarrillaren 19xan gure artera etorri ziñalako. Famelixaren partez.



Zorionak, JOSEBE, astelehenian hamabi urte bete zenduaz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, JOSU Urkia, bixar hiru urte beteko dozuzelako eta irrien laguna zaralako. Asko maitte zaituen aitatxito eta famelixaren partez.




Zorionak, ALBA, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, aitaxo eta amatxo, gure MARKELTXO aillegau da-eta. Osaba David eta izeko Loreren partez.




Zorionak, ARRATE, martitzenian bost urte beteko dozuzelako. Maitte zaittugun guztien partez.




Ongi etorri hillaren 12xan jaixotako IRAIA Blanco Calderón-i. Famelixaren partetik.




Zorionak, GAIZKA, domekan zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, URKO, astelehenian urte haundi-haundixa beteko dozu-eta. Aitaxo, amatxo eta nire partez. SARA Alberdi.




Zorionak, ANE, hillaren 19xan sei urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat danon eta, batez be, Iraiaren partez.




Ongietorri hillaren 15ian jaixotako MAREN-i eta laztan haundi bat amatxo eta aita-xori. Batez be, Noah-ren partez.




Zorionak, PAULE eta HAIZEA, hillabete honetan urtebete eta bi urte bete dozuez-eta. Laztan bana famelixaren partez.



Zorionak, NORA, aurreko zapatuan lau urte bete zenduaz-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, gure sorgintxuari, bixar urtebete egingo dozu-eta.



Zorionak, JANIRE, gure sorgintxuak domekan sei urte beteko ditto-eta. Etxeko danon partez.

HILDAKOAK

- Puri Ocejo Negruela. 68 urte. 2011-XII-30.
- Sofia Cadiermo Santos. 91 urte. 2012-I-4.
- Jose M^o Delgado Isasi. 77 urte. 2012-I-19.
- Jesusa Aizpurua Mendizabal. 92 urte. 2012-I-22.
- Jose Larrañaga Gabilondo. 50 urte. 2012-I-22.
- Julita Diego García. 96 urte. 2012-I-23.
- Rosario Olabarria Larrañaga. 85 urte. 2012-I-23.
- Nando Alvarez Suárez. 56 urte. 2012-I-23.
- Aureo Esparza Azanza. 90 urte. 2012-I-23.
- Jose M^o Muñoz Urzelai. 89 urte. 2012-I-24.
- Iñaki Ibaibarriaga Solozabal. 86 urte. 2012-I-24.
- Esteban Ulazia Uringa. 85 urte. 2012-I-24.
- Benito Méndez Muiños. 55 urte. 2012-I-24.
- Jaime Baglietto Prieto. 80 urte. 2012-I-25.

JAIOTAKOAK

- Paul Alkorta Cid. 2012-I-14.
- Maryam Ghacham Emrani. 2012-I-14.
- Maren Etayo Lozano. 2012-I-15.
- Paula Robles Ortiz. 2012-I-16.
- Markel Císcar Agirregomezkorta. 2012-I-18.
- Zainab Samadi. 2012-I-20.
- Luka Vega Alberdi. 2012-I-20.

horoskopoa

ARIES

Aspaldian ikusi ez duzun lagun batekin egingo duzu topo. Aspaldiko kontuak gogoratzeaz gain, planak ere egingo dituzue etorkizunerako.

TAURUS

Lasai egon eta atsedena hartzeko aprobetxatuko duzu asteburua. Gelditu barik zabilta eta gorputzak eskertuko dizu ezer ez egitea.

GEMINI

Konturatu barik, zure bizitzako hainbat ohitura aldatuko dituzu. Prozesua aspaldi hasi bazen ere, datorren astea izango duzu helmuga.

CANCER

Badakizu beste pertsona batzuen laguntza barik ez zenuela lortuko hainbeste kezkatzen zizun hori. Orain eskerrak emateko unea da.

LEO

Neurririk gabe erosten duzu eta gero gauza mordoa soberan dituzu etxean. Hobeto kontrolatu, zure poltsikoak ere eskertuko du-eta azkenean.

VIRGO

Araza gutxi izango dituzu astean zehar egokituko zaizkizun lanak egiteko. Lasai hartu, burua arin eta gorputza sendo izango dituzu-eta.

LIBRA

Ondo ibiliko zara asteburuan, baina astea ez da hain polita izango. Gauza bat dela edo bestea dela, oztopo asko izango dituzu bidean.

SCORPIUS

Berriketaldi ederra izango duzu familiakoekin eta imajinatzen ez zenituen gauzekin ohartuko zara. Ea nola gainditzen duzun shock hori.

SAGITTARIUS

Zure gauzek bizitza propioa dutela ematen du, egunero galtzen baituzu zerbait. Argiago ibili zaitez, egunen batean burua galduko duzu-eta.

CAPRICORNIUS

Begi txarrez begiratzen dizun bat dagoela konturatuko zara. Zergatik ete? Ia ez duzu ezagutzen; zeintzuk dira bere arrazoiak? Jakingo duzu.

AQUARIUS

Hiru hilabete geratzen dira, baina Aste Santuan nonbaitera joan nahi baduzu, berehala egin beharko dituzu gestioak, prezioak goraka doaz-eta.

PISCIS

Aurreko asteburuan egin ezin zenituen planak egin ahal izango dituzu oraingoan. Dena dela, lasai egon, une onak igaroko dituzulako.

Zapateria 28

ATE IREKIAK

11.30.- "Aldatze danok gara" ate irekien jardunaldia (tailerrak, ikus-entzunezkoak, bideokonferentziak, jokoak ...). Aldatze ikastetxean.

AZOKA DEBALDE

11.30.- Nahi duzuna ekarri eta nahi duzuna eraman doan. Urkizu parkean.

BISITA GIDATUA

12.00.- "Matsarian zerbait gertatzen ari da" erakusketari lotutako bisita gidatua Matsariara, minibusean (irteera Portale paretik, buelta 13.30etan).

MUS TXAPELKETA

16.00.- Euskal Herriko IV. Mus Txapelketaren Eibarko kanporaketa. Prezioa: 20 euro bikoteko. Klub Deportiboan.

UMEENDAKO OPERA

17.00.- "La pequeña Flauta Mágica". Opera Divertimentoren eskutik. Mozarten operaren moldaketa, 3 urtetik aurrerako umeentzat. Coliseoan.

LAGUN TALDEAREN IKUSKIZUNA

17.30.- "Mentiras a euro" Lagun Taldearen ikuskizuna. Sarrera: Euro bat. Hezkuntza Esparruan.

Domeka 29

BATZARRA

11.00.- Kantabriako Etxekoen ezohiko batzarra. Centro Montañés-ean (Jardiñetan).

PIANO JAIALDIA

12.30.- III. Gazteen Piano Jaialdia, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako, Isabel Laspiurren eta Musikum akademiako ikasleekin. Zuzendari pedagogikoa: J. Markos Juaristi. Coliseoan.

Eguaztena 1

TAILERRA

10.00.- "Lan bilaketan komunikazio eredu berriak" (3 ordu). Lanbide kodea: 76345. Portalean. Aldez aurretik izena eman behar da, 943820180 telefono zenbakian, svo@debegesa.com helbidean edo www.lanbide.net helbidean.

IKASTEN

11.00.- Tertulia-kafea: "Monarkia edo Errepublikak". Untzaga jubilatuen egoitzan.

DENBORA PASAK

5	7	0	9	8	6	1	4	2
4	8	8	2	9	1	7	5	3
3	1	2	5	7	4	9	6	0
6	3	1	4	2	9	8	7	6
8	2	4	1	6	7	3	9	6
7	9	5	8	3	8	4	2	1
1	6	7	0	4	5	2	3	9
2	4	8	8	6	3	6	1	7
9	5	3	7	1	2	6	8	4

		9	1	3	4	5
2			7	3		9
					7	
		4			8	
7	2			5	6	
	6		2			
	9					
8	6		1			4
1	5	9	7	6		

AURREKOAREN EMATZA

SUDOKUA


zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

27an: 22.30
28an: 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
30ean: 20.30

"Jane Eyre"

Zuzendaria: Cary Fukunaga



(2 ARETOAN)

27an: 22.30
28an: 19.45, 22.30 (Antzokian)
29an: 17.00, 20.00 (Antzokian)
30ean: 20.30

"El Topo"

Zuzendaria: Tomas Alfredson




(ANTZOKIAN)

27an: 22.30
28an: 19.45
29an: 17.00
30ean: 20.30

"Jack y su gemela"

Zuzendaria: Dennis Dugan





erakusketak

- Urtarrilaren 27ra arte
KOKO-MARRUAK. Armagintzaren Museoa.
- Urtarrilaren 29ra arte
CHARO GIL, ELISABET EGUREN ETA MARI FRAN EREÑAren margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Urtarrilaren 30era arte
“UN DIA DE PESCA”. *El Corte Inglés*an.
- Urtarrilaren 31ra arte
JOSE LUIS GARCIA DE MADINABEITIAren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
OSCAR BLANCOren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
AINARA GARCIAren “Euskal Herriko txokoak” argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- Otsailaren 4ra arte
“MATSARIAN ZERBAIT GERTATZEN ARI DA”. *Portalean.*
- Otsailaren 5era arte
“ETXEBERRIA: LEHEN URTEA”. *Portalean.*

lehiaketak

- **Marrazki lehiaketa.**
Gaia: Aratosteen inguruko marrazki lehiaketa (14 urtera arteko umeentzat). Marrazkiak Errebal-Ibarkurutze inguruko denda eta tabernetan hartuko dituzte, otsailaren 1etik 13ra bitartean, eta parte-hartzeileen artean opari-zozketa egingo dute.
- **Toribio Etxebarria Sariak.**
Gaia: Enpresa ideiak eta proiektuak. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 7ra arte,* www.bicberrilan.com helbidean.
- **Portada lehiaketa.**
XXIX. Día das Letras Galegas egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 28ra arte,* As Burgas Galiziako Etxean (Urkizu, 11 behean).



(2 ARETOAN)
28an: 22.30
29an: 20.00

“Nader y Simin”

Zuzendaria: **Asghar Farhadi**

farmaziak

- 27, barixakua**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 28, zapatua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 29, domeka**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- 30, astelehena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 31, martitzena**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- 1, eguaztena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 2, eguena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 3, barixakua**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea**943 70 07 99**
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztatua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.
– Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 56 m². Igogailua. 168.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Eibar erdialdean. Erabat berriztatua. 120 m². 900 euro. Tel. 670-779713.

1.3. Konpartitzeko

– Pisua konpartitzeko emakumea behar da. Deitu 17.00etatik 19.00etara. Tel. 681-081763.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
– Garajea alokagai Arrate-Biden. 1. solairuan, itxia eta autoa garbitzeko tokiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.
– Ilepaindegi berria alokagai, arazo pertsonalengatik. Merke. Tel. 667-806737.
– Garaje itxia alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-529165.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-303534.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo internan. Tel. 646-887739.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-887814.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 633-150376.
– Mutila eskaintzen da dendako saltzaile, garbitzaile edo pintore jarduteko. Tel. 622-139912.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-306518.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Orduka edo internan. Tel. 659-908513.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 650-152866.
– Neska eskaintzen da tabernak, soziedadek edo etxeak garbitzeko. Tel. 638-527489.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo jornada osoz. Tel. 638-338816.
– Ilepaintzailea eskaintzen da ileapaindegi mistoan lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Deitu 17.00etatik 19.00etara. Tel. 681-081763.
– Emakumea eskaintzen da gauze nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-929348.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 652-248893.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-973549.
– Neska euskalduna eskaintzen da ileapaindegian lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-096417.
– Ilepaintzailea eskaintzen etxez etxe nagusiak orrazteko. Tel. 627-855223.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 674-481945.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 609-148861 eta 943-257815.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 657-396018.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko (esperientzia), igeltsero moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-332871 eta 943-257815.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lan egiteko Eibar eta inguruan. Tel. 606-502567.
– Neska arduratsua eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko jornada erdiz eta orduka. Tel. 618-052967.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 674-027961.
– Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 669-966611.

4.2. Langile bila

– Odontologoa behar da astero 2-3 arratsaldetan Ermuko hortz-klinika batean. Urte biko esperientzia. clinicadentalcd@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da akademia baterako. LHtik Batxilergo arteko klaseak emateko. Tel. 652-763264. laneskaintza@gmail.com

5.2. Eskaintzak

– Bibolina jotzen irakatsiko nuke asteburuetan. Metodo erraza eta dibertigarria: solfeo edo solfeorik gabe. Adin guztiak. Asteburuetan. Merke. Tel. 679-740061.

– Euskarazko klaseak ematen ditut, azterketarako: EGA, perfilak, Habe-ren mailak. Tel. 620-608065.
– Klase partikularrak ematen dira: Euskara, Matematikak, Fisika, Kimika. Talde txikiak. Tel. 699-069080.
– Irakasleak maila guztietako klase partikularrak ematen ditu. Lau laguneko taldeak. Talde berriak urtarilean. Tel. 685-739709. Patrizia.

6. Denetarik

6.1. Salgai


– “Sendra” botak salgai. 38 zenbakia. 50 euro. Tel. 699-532243.
– Errepideko bizikleta salgai. Zeus Shimano 105, karbonozko urkilekin. 2.000 km. Tel. 628-714824.
– Bizikleta estatikoa salgai, programekin. Oso egoera onean. 170 euro. Tel. 628-714824.
– Ordenagailua salgai. la berria eta egoera onean. Compaq. Tel. 653-167841 eta 943-208117.
– Sofa bi salgai: 3 plazakoa (2x0'88) eta bikoa (1'48x0'88). Beigeak eta garbitzeko teladunak. 400 euro. Tel. 650-988799. Marian.

6.2. Eman

– Artzain txakur-kumeak oparitzen dira. Abenduaren 23an jaiotakoak. Tel. 600-464625.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Border Collie arrazako txakurra desagertu da, orain dela astebete, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jausita dauka. Ikusten baduzue, deitu. Tel. 629-588627.



6.4. Bestelakoak

– Zure elkarte gastronomikoan bazkide berria behar baduzu, deitu. Tel. 646-293311.
– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosiko nituzke. Tel. 943-572057.
– Playmobil jostailuak erosiko nituzke, baita doan jasoko ere. Tel. 638-925415. Bittor.

Zuk uste baino hurbilago, nahi bezain urrun hel daitezten.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurrematrikulak


HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



ITZIO D.B.H.

943 70 22 89

**Nahi bezain
URRUN HELTZeko.**
Heziketa ZIENTIFIKOA.
Heziketa MODERNOA.
GIZA heziketa.
**HIRU HIZKUNTZAKO
heziketa.**



MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94



AMAÑA

943 20 72 50

Urtarrilaren 30etik
Otsailaren 10era

2012
2013
IKASTURTEA




ARRATEKO ANDRA MARIA

943 20 72 35




J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



URKIZU

943 12 17 78

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75